

**AFRIKAKO AHOZKO LITERATURA,  
MEMORIA KOLEKTIBOTIK KRITIKA SOZIALERA.**

(Egan aldizkaria 1998-1/2ko gehigarria)

**Egilea: Ana Urkiza**

Literatur aldizkari batean irakurri dut, oraintsu, esaldi biribil bat, esaunde ospetsuen estilokoa, maileguan hartuko dudana iruzkin honi goiburua emateko aproposa izan daitekeelakoan. Esaldia Amadou Hampaté Ba izeneko batena omen da: «Afrikan, zahar bat hiltzen denean, liburutegi bat erreko balitz bezala da». Aipu horri polita bezain erlatiboa irizten zion aldizkari hartako artikulugileak, azken batean, zahar guztiak ez baitira egiaren igorle eta zaharren esperientzia berez ez delako baliotsua, entzule edo hartzaile egokirik ez duen bitartean. Bizitza luze bat, azken batean, ez delako nahitaez jakituri bermea.

Haatik, esango nuke beti ere estimagarriak direla adinduen esanak harrapatzeko eta betikotzeko ahaleginak. Zentzu horretan, aipatzekoa eta betikotzeko ahaleginak. Zentzu horretan, aipatzekoa deritzot Ana Urkizak (Ondarroa, 1963) Afrikako ahozko literaturaren eremu bat hartuta -ipuingintza- taxutu duen azterlanari. Liburukiaren edukia zati nagusi bitan egituraturik agertzen zaigu: lehenengoa, aztertzaileak berak **Afrikako ipuinen gainean egindako azalpen orokorra** dugu; biga-

rrena, zenbait lurraldetako (Ginea, Mali, Senegal...) **ipuin-sor-ta txukuna**. Guztira, hamazazpi ipuin. Ipuinok Karthala izene-ko bilduma batetik aukeratu ditu eta lagin adierazgarria dira, beren ezaugarriak medio azterlanaren helburua egiaztatzeko: ahozko ipuinek memoria kolektiboaren gordeleku gisa eta heziketa sozialari begira betetzen duten langintza erakustea. 1980-1995 bitartean jasotako bilduma horren **bertsio frantse-sa euskarara itzulita** luzatu digu Urkizak, euskara xalo, zoli eta gardenean.

Sarreran aztertzen diren alderdiak ondokoak dira, aurkibi-dearen arabera, eta hauxe bakoitzaren mamia labur-labur azalduka.

1. **Gaueko hitzak**. Ipuina noiz kontatzen den: suaren inguruan, jesarrita, iluntzean, entzuleen gogoak mezuak onartzeko prestuen dagoen unean.

2. **Ipuinen publikoa**. Zahar zein gazte, gizon zein emakume, ipuinaren entzuleek bi irakurketa eginen dizkiote ipuinari: bata, zuzena, hitzez hitzekoa; bestea, sakonekoa, irakasbidea ematen duena.

3. **Ipuinen helburu soziala**. Gizakiaren eta gizartearen funtsezko itaunei erantzuna ematea eta kritika sozialean oinarrituz, heziketa-funtzioa burutzea.

4. **Ezaugarriak**. Lautan biltzen ditu ezaugarri nagusiak: ipuinak balio du jostatzeko, hizlariak trebatzeko, gauean hausnarketa egiteko eta egiara hurbiltzeko (izaera etiologiko edo dogmatikoa).

5. **Gaiak**. Ideia estereotipatuen bidez azaltzen dira, gai nagusi hauek: ausardia, saria edo irabazia, jakituria, bertutea, promesa, zigorra ... ipuin-mota hauen bidez garatuta: alegiak, ipuin-enigmak, ipuin filosofikoak, familiari buruzko ipuinak eta herorien ipuinak.

**6. Pertsonaiak.** Nahastean bizi dira gizakiak, animaliak (sugea, txoria, igela, elefantea, kamaleoia, inurria ... gizakien simbolo) eta deabruak edo manuak. Gizaki estereotipoak dira, ezaugarri espezifikoko baten bidez deskribatuak: ama-ordea, emaztea, printzea, itsua ...

**7. Egitura.** Alderdi formalei buruzko esplikazioa: kanpo- eta bane-egiturak, hasiera eta amaierako formulak, tituluak, espazioa, denbora eta estilo-baliabideak.

Azken horiei dagokienez, ezin aipatu barik utzi aniztasuna, agerikoak baitira sinbologia, elkarrizketak, errepikapenak, baliabide semnatiko eta fonikoak eta kontalariaren lekukotasuna.

Bigarren parteari edo ipuin-sortari dagokionez, gogoratzekoak iruditu zaizkit 7. ipuina *Sabanen hazitako umezurtza* edo 16.a, Damkala. Gustuak gustu, irakurleak berak egingo ditu bere aukerak. Irakurketa errazte aldera azalpen txikitxo bat egiten du Urkizak ipuin bakoitzaren hasieran, **funtsezko xedearen** berri emanez: gizarteak gaitzesten dituen ekintzez informatzea, zaharren aholkuak aintzat hartzearen komenigarritasuna, justiziaren zigorraz oharraraztea, eta abar luze bat.

Ipuinetan, **paisajearen, faunaren eta floraren aipamen** nahitaezkoek bizi-bizi imajinaraziko digute zeharka edota filmen bidez ezagututako Afrika urrun arrotza: sabana, tam-tam hotsa, hipopotamoak, ibaiak ... Tokiko **deiturak**, hala nola Bondi txikia, Bakulu mamutzarra edo Damkala arrantzalea, bereziak dira beren naturaltasunean.

**Interlekzioek** eta **kantuek**, ulergaitzak batzuetan baina xarmaz beteak, magia-kutsuz hornitzen dituzte ipuinak.

Dena den, esan behar noizean behin elementu harrigarriak ere ageri direla kontaeretan, modernitateak ere ziprztintzen duelako, goiz edo berandu, kultura guztien jatortasuna. Halaxe topatuko ditugu «irratia» edo «praka berdeak», giro errural eta mitiko horretan lasai asko txertatuta.

Atseginena, irakurri ahala, **kulturen arteko loturak** antzematea gertatu zait. R.M. Azkuek Euskal Herriaren Jakintzan jasotako *Alaba eta Alaba-ordea* hementxe daude, *umezurtza eta hipopotamoa* izeneko ipuinean, aldagaiak aldagai. Haur-jolasetan galdera-erantzun sisteman formulaturiko lelo edo errepika kateatuak ere hemen dira, harribitxien moduan distiraka: «*Jainkoa, Jainkoa, eskainiezadazu euri ziri-miria, arren! / Ziri-miria zertarako? -galdetuko zion Jainkoak. / - Ihiari eskaintzeko. / - Ihiari zertarako? / - Behiari eramateko. Behiari zertarako? / - Kaka lortzeko. / - Kaka zertarako? Pikondoari eramateko. / - Pikoncloari zertarako? Piku belduak eman diezazkidan. / Piku belduak zertarako? Amari erainateko. / - Amari zertarako? / Oihala eman diezadan. Oihala zertarako? / - Festara joateko! / - Zeinen festara? Moussaren festara. Ez dardila, arren, ni beldu aurretik bukatu!».*

Honekako lanak, irakurgai baliagarriak izan litezke eguneroko eskola-jardunean, gazteen imajinarioan murgildu eta aberasteko. Ipuinek, bizitzaren alegoria izanik, sekulako balioa dutelako geure burua, geure jokaerak, geure arazoak aztertzen. Denbora eta espazioa bestelakoak izanda ere, gizakiaren unibertsaltasuna gailentzen da, dudarik gabe.

Miren Agur Meabe  
1999-11-4